

◦ Neskatilak erreklutatzea ◦

# Gerrillaren atzaparretatik ihesi

Kolonbiako gerrillak Venezuela eta Kolonbiaren arteko mugan mutiko asko berarekin eraman ohi dituela kontatu genizuen aurreko asteko zenbakian. Baina gerrillek ez dute sexu bereizketarik egiten eta neska gazteak ere badituzte jomuga.

ROBERT SCARCIA



AURREAN DUDAN ANDREAK zehaztasun handiz kontatu dit istorioa: “Mutiko hura, Omar, taxi-ko leihotik eskuarekin agur egiten ari zitzaidala ikusi nuenean, ez nuen ulertu zer gertatzen ari zen. Arratsaldeko zortziak ziren eta handik pixka batera bere ama etorri zitzaidan, seme-txoia dendan ez zegoela eta ez zuela aurkitzen esanez. Nik taxiarena esan nion, eta emakumea, lur jota, negarrez hasi zen. ‘Ai Blanca! Nire Omar eraman dute, gerrillak mendira eraman du!’ oihiu egiten zuen. Omarrek 12 urte besterik ez zituen. Orduan ulertu nuen laster etorriko zirela nire alabaren eta bi iloben bila; orduan jakin nuen gerrillarien hizkeran esaten den bezala nire *chamak* (neskatilak) poltsan eramateko modukoak zirela, mendirako prest zeudela alegia... Neskek beraiek kontatu zidatenaz gogoratu nintzen orduan: behin, eskolatik irteterakoan motorrean zihoazen mutil batzuk ondoan geratu zitzaizkien eta haiekin joan zitezen esan zieten, komandante gerrillari batek beraiekin hitz egin nahi omen zuen eta. Ulertzen didazu? Hortaz, handik atera behar nituela erabaki nuen, eta goizaldeko lauretan etxetik irten eta denok kamioi batean ezkutatuta iritsi ginen Venezuelara, agiririk gabe. Hango izeba bati deitu nion, eta bila etortzeko taxi bat bidali zigun”.

2000ko hamarkada hasieran, Álvaro Uribe-  
gidaturiko Kolonbiako Gobernuak eraso mili-  
tarra jo zuen gerrillak kudeatzen zuen lurralde

**Blanca eta bere alaba. Kolonbiako gerrillatik ihesi, Venezuelara alde egin zuen Blancak familiarekin, baina erreklutatuak izateko arriskuan jarraitzen dute neskek.**

zatiaren kontrola berreskuratzeko. Hala, nar-  
kotrafikoan eta gerrillan oinarritutako oreka  
ezegonkorra hautsi zen. Nekazariak koka lan-  
darea landatu eta hostoak trafikatzailerei saltzen  
zizkieten, eta gerrillak narkotrafikoaren gaine-  
ko zerga kobratzen zuen, ‘vacuna’ delakoa.  
Testuinguru horretan, ejertzitoak Amerikako  
Estatu Batuen Kolonbia Planarekin finantza-  
tutako eraso militarra jo zuenean, erasoari  
aurre egiteko, gerrillariak, beren burua jazarrita  
ikusi zuten, presio handiagoa egin zuten  
borroka lekuetan bizi ziren neska-mutiko eta  
nerabeak erreklutatzeke. Horrela hasi ziren  
Blancarentzat “infernuko zortzi egunak”:

“Hirigunean bizi ginen. Gerrillari taldeak  
eta paramilitarrak eguneko eta gaueko edo-  
zein ordutan iristen ziren, batzuk uniforme-  
z jantzita eta besteak kale jantziekin. Hitzordua  
jartzen ziguten; beraien bileretara joan eta  
taldekide bihurtu behar genuela esaten zuten,  
baina ni ez nintzen joaten ez batzuen eta ez  
besteen deialdietara. Zortzi egun generama-  
tzan presio oso handiarekin; borroka, tiroke-  
tak, torturak, hildakoak... pairatzen genituen  
egunero. Baina Omar eraman zutenean,  
orduan jakin nuen helburua ez zela ni presio-  
natzea, nire neskatilak eramatea baizik”.

## Koka biltzen duten haurrak

Talde armatuek hainbat motatako indarkeria  
erabiltzen dute haur eta nerabe kolonbiarren



Ezkerreko irudian, Blancaren iloba. Eskuinekoan, gerrillako neskak.

aurka. Blancak gogoan du neskatilak salbatzeko ihes egin behar izan zuen garaia. Garai hartan narko-gerrillariak agintzen zuten bere eskualdean. “Indarkeria, bonba-autoak, tiroketak, bonba-motoak, *vacuna* (estortsioa) ziren gure eguneroko ogia. Pentsa, bonba-bizikletak ere bazeuden, lehergaiez kargatutako bizikletak. Baina guk dena jasaten genuen, gauzak horrela egonda ere herrian dirua mugitzen zelako eta aurrera jarraitu genezakeelako; nik janari lasterra eta *chanceak* (lote-riako txartelak) saltzen nituen”. Emakumeak *raspachin* taldeak zeudela kontatu du, hau da, narkotrafikatzaileentzat koka hostoak biltzen dituzten haurrak. “7 edo 8 urteko umeak ziren; koka harraskatzen lan egiten zuten eta diruz betetako poltsatxoekin ibiltzen ziren. Lan egin ondoren asko edaten zuten, guztiz kontrolik gabe ibiltzen ziren”.

### Neskak: amu eta esklabo

Talde armatuek ez dute sexu bereizketarik egiten. Mutikoek kanoi bazka gisa balio dute gerrarako. Neskatilek ere agian horretarako balioko dute baina ez horretarako bakarrik... “Zenbat eta otzanagoak” hobe. Neska gazteak, askotan, gatibutasun sexualerako erabiltzen dira: gudarien atsedenerako. Gainera, neskak amu bezala erabiltzen dira maiz, mutikoak “goxatu”, maitemindu eta talde armatuetan sarrarazteko.

Andre honen eta bere alaba eta bi iloben historiak, zorionez, bukaera zorionsua izan zuen. Venezuelen dagoen Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak (SJR) emandako laguntzari esker, bizitza berri bat hasi ahal izan zuten estatuko mugan dagoen Apure herrian.

Alabaina, Kolonbia eta Venezuelaren arteko muga markatzen duen Arauca ibaia zeharkatzea lortu zuten *chamak* oraindik ere erreklutatua izateko arriskuan daude, izan ere Kolon-

**Neska gazteak, askotan, gatibutasun sexualerako erabiltzen dira: gudarien atsedenerako. Gainera, amua dira maiz, mutikoak talde armatuetan sarrarazteko**

biako gatazka Venezuelara iritsi baita eta horrek hirietako segurtasun falta areagotu du. Talde armatuek Venezuelako mugan dauden lurraldeetan jarraitzen dute erreklutatzen. Oraintxe bertan, gatazkan sartzeko gazte bila dabil hainbat talde armatu, lurraldearen kontrola lortzeko gerran espia edo sikario lanak egin ditzaten. Talde horiek bete dute Venezuelako Estatuak utzitako hutsune instituzional eta juridikoa. Iturri seguru batek esandako hitzak errepikatuz, “mugan, Venezuelako Estatuaren instituzionaltasuna miaketa hutsa baino ez da” eta, ondorioz, miaketa ez den oro herritarren arteko artekari lanak egiten dituzten talde armatuek hartzen dute bere gain.

### Komandanteak, printzearen pareko

Indarkeria orokortuta dagoen inguruetan, batzuetan, neskatilak erreklutatzea etortzen diren komandante gerrillariak babes eta segurtasun irudia ematen dute. Bestela esanda, gerrillariak maitagarrien ipuinetako printze urdinaren arketipoa irudikatzen dute: jauregia mendiko kanpamentu segurua da, ezpata AK-47 fusila, eta menpekoak berri, aginduak betetzen dituzten mutikoak. Erraz ulertu daiteke zergatik mugako neskatila askok bere burua Errauskineren lautadetako bertsioarekin identifikatzen duten.

10 eta 11 urte inguruko bi neskatxa politen ama den andre venezuelar baten begietan urduritasuna eta ezintasuna nabari dira: “Zer egingo dut nire umeak gerrillari batekin maitemintzen badira?” Ez dakit zer erantzun; aterpe eskean dabilen eta ia hamar urtez alaba ikusi ez duen emakume kolonbiar baten eguneroko samin garratza dator kit gogora: “Gerrillari batekin maitemindu eta berarekin joan zen”. Alabak 13 urte baino ez zituen. ■